

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

4. LANTALDE POLITIKO TEKNIKOAREN AKTA

Eguna: 2022-04-07

Ordua: 17:00-18:30

Lekua: Tolosako Udala

PARTAIDEAK	
Tolosako Udaleko 3 zinegotzi (EAJ, EH Bildu)	<input checked="" type="checkbox"/>
Berastegiko alkatea	<input checked="" type="checkbox"/>
Tolosako Asanblada Feminista (2 ordezkari)	<input checked="" type="checkbox"/>
Tolosaldeko Mugimendu Feminista (ordezkari 1)	<input checked="" type="checkbox"/>
Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria	<input checked="" type="checkbox"/>
Elhuyarreko teknikaria	<input checked="" type="checkbox"/>


Gai zerrenda:

1. Gune Zabalaren balorazioa

Gune Zabalaren balorazio positiboa egin da: 50 emakume inguruk parte hartu zuten, gehienak Tolosakoak izan ziren baina eskualdetik ere hurbildu ziren, emakume migranteek ere parte hartu zuten, eta parte hartzaileak gustura atera ziren jasotako informazioarekin. Bereziki baloratu da Talde Eragileko emakumeek aurkezpenean parte hartu izana, baita urte osoan egindako lana batera aurkeztu izana ere.

Etxearen izena erabakita geratu zen: ANDRAGORA TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

01 Gune Zabala



2. Finantzaketa partekatua zehaztu

Behin argituta eskualde osotik 24 herri batuko direla proiektura (Hernalde, Abaltzisketa, Belauntza eta Albiztur kanpoan geratu dira) **udal bakoitzak egin beharreko ekarpen ekonomikoaren proposamen berritua** aurkeztu dute Tolosako Udaleko ordezkariak.

***oharra:** aktarekin batera atxikita duzue bileran aurkeztutako taula.

Herri txiki batzuk oraindik ez dituzte argitaratuta boletinean beraien aurrekontuak, maiatzean egingo dute. Kasu horietan, aurreko urteetako datuak jarri dira, izan ere, herri txikietan normalean ez da kopurua aldatzen urtetik urtera.

Mantenuaren gastua egokitu egin da 2020ko datua baitzegoen aurrez jarrita. Orain, 25.200 euro izango da denera, %5a igota.

Tolosako Udala aztertzen ari da kontu hartzailearekin **finantzaketa partekatuaren banaketa hau nola kudeatu modu simple batean**. Proposamen zehatza ekarriko du Tolosako Udalak.

Bai finantzaketa partekatuari zein dinamizatzailearen kontratazioari begira, **kronograma** hau proposatu dugu:

02 Kronograma

HURRENGO URRATSAK		2022ko hilabeteak											
		04	05	06	07	08	09	10	11	12			
FINANTZAKETA PARTEKATUA	Finantzaketa partekatua aurkeztu 24 herriei												
	Finantzaketa partekatua plenoetatik pasa												
DINAMIZATZAILEAREN KONTRATAZIOA	Dinamizatzailea aukeratzeko prozesua adostu												
	Dinamizatzailea aukeratzeko prozesua abiatu eta burutu												
	Aukeratu eta kontratatu dinamizatzailea												
	Dinamizatzailea lanean hasi												

Finantzaketa partekatua kudeatzeko Tolosako Udalak proposamena (lankidetzeta hitzarmena edo beste) zehaztu ondoren, **24 udalen arteko bilera** egitea proposatzen da, ahal bada maiatzean. Bilera horretan aurkeztuko zaie herriei:

- Finantzaketa partekatua kudeatzeko Tolosako Udalak proposatutako eredua (lantzeko)
- Gastuen banaketa-taula berritua (atxikitako excel taula)

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria eta Berastegiko alkatea arduratuko dira 24 udalen arteko bilera zehaztu eta deialdia egiteaz (maiatza/ekaina).

3. Dinamizatzailearen kontratazioa zehaztu

Gogoratu dugu 23 herrien artean (Tolosa ez beste herriak) egin beharreko dinamizatzaillearen kontrataziorako aukera desberdinak zeudela: hitzarmen bidez, elkarteak sortuz edota **Tolosaldea Garatzenean bidez kontratatzea**. Azken aukera honen aldekoak dira eskualdeko herriak.

Berastegiko alkateak azaldu du, Tolosaldea Garatzenean kontsulta egiten ari direla abokatuekin honen bidez egiteko dinamizatzaillearen kontratazioa. Aste honetan egin da batzarra eta momentuz ez dago zehaztuta. Lanpostuak egonkortzeko legeak eta Lan Erreforma berriak zalantzak sortzen dituzte, eta aztertzen ari dira kontratazioa egiteko zein aukera dauden. **Apirilaren 25ean bilduko da Administrazio Kontseilua** eta kontrataziorako dauden aukerak aurkeztuko dituzte bertan. Honen berri emango dute Tolosaldea Garatzenean Administrazio Kontseiluan dauden ordezkariak.


2-3 hilabete gutxienez beharko dira dinamizatzaillearen aukeraketa eta kontratazioa egiteko eta aipatu da **udal batek arduratu** beharko duela prozesuaz. Parte-hartze prozesu honetan eskualdeko ordezkari lana egiten ari diren Berastegi edo Asteasuko udalak arduratu daitezkeela aipatu da.

Dinamizatzaillearen kontrataziorako plegu teknikoak eta azterketarako gaitetia aurreratu daitezke, hortaz, Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria arduratuko da beste herri batzuei eskatzeaz.

4. Talde Eragilean landutakoa partekatu

Dinamizatzaillearen profila Talde Eragilean landutakoa aurkeztu dugu lehenik. Oinarri bezala ezarri zen: berdintasun-teknikari profila izatea, lanaldi osoan aritzea, deialdi ireki bidez aukeratzea eta euskaraz lan egiteko gaitasuna izatea. Gainerako atal hauek ere proposatu ziren Talde Eragilean:

04 Dinamizatzaillearen profila



Dinamizatzaillearen funtzioekin lotuta berriz, hona hemen proposamena:

04 Dinamizatzailearen funtzioak

1. Etxera hurbiltzen diren emakumeei **harrera egin** eta **informazioa eman**. Eskabideen tramitazioa egin.
2. 24 herrietako udalekin eta talde feministekin **harremanetan egon**.
3. Eskualdeko talde feministen **mapeoa** egin.
4. Tolosako Udaleko **berdintasun-teknikariekin batera**, Etxeko lantalde, jarduera eta zerbitzuak koordinatu, dinamizatu, planifikatu (irakasleen kontratazioa, Tolosako Udalarena ez bada) eta ebaluazioa egin.
5. **Kudeaketa-organoetan** parte hartu: Talde Eragilea, Koordinazio Gunea, eta Gune Zabala/Asanblada. Kudeaketa organoetako bilera -deialdiak egin, akta jaso eta bidali.
6. Kudeaketa -organoetan hartutako **erabakiak gauzatu eta koordinatu**.
7. **Berdinbideanen** parte hartu
8. **Indarkeria matxista** kasuen deribazioa egin, berdintasun-teknikariekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta.
9. **Espazioaren kudeaketa** egin: jardueretarako gelak prestatu, atea ireki eta itxi (ordutegia goiz eta arratsalde)
10. **Programaziorako** proposamenak egin, programazioa diseinatu eta aurrera eraman.
11. **Urteko memoria** egin eta aurkeztu dagokion organoan.
12. Gipuzkoako Emakumeen Etxeen artean sortu berri den **sarean parte hartzea**.

Aipatu da bertako funtzio hainbat **Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariekin elkarlanean** egingo dituela dinamizatzaileak.

Berdinbideanen parte hartzea egoki ikusi da baina argi utziz bertako lanak ez dituela dinamizatzaileak egin behar, herrietako ordezkari politiko eta teknikariek baizik. Gauza bera Gipuzkoako Emakumeen Etxeen artean sortutako sarean parte hartzearekin. Dinamizatzaileak eskualdearen ezagutza eta jakintza izateko baliagarri izango dira guzti hauek.

Etxearen funtzionamenduari dagokionez, Talde Eragilean landutakoa ere partekatu dugu:

04 Etxearen funtzionamendua

Etxea **asteleheneretik ostiralera** irekita egongo da, **goiz eta arratsalde, baina ordutegi zehatza oraindik ez da itxi**.

Publikoari irekita dagoen ordutegian **Etxeko dinamizatzaileak harrera** egingo du. Publikoari irekita ez dagoen orduetan **giltzaren bitartez** erabili ahal izango da Etxea. Aldez aurretik egin beharko da eskaria horretarako.

Lokala itxita dagoenean espazioa erabiltzeko **baimena edozein erabiltzailek** eska dezake. (Erregelamenduan zehaztuta dagoen erabiltzaile figuran sartzen den emakume orok izango du espazioaren erabilera eskatzeko aukera. Etxeko erabiltzaileen erregistroa egongo da)

Espazioa erabiltzeko eskaera **norbanakoaren izenean** egingo da. Ekintzaren arduraduna talde bat izan arren, izen-abizenekin egin beharko da espazioaren erabileraren eskaera.

Etxeko espazioa erabiltzeko **eskaerak dinamizatzaileak jasoko ditu**.

Giltzaren arduraduna eskatzailea izango da, norbanakoa zein taldea.

Etxearen helburuekin bat datozen ekintzetarako erabili ahal izango da Etxea.

Oinarri egokitzat jo da landutakoa. Etxearen ordutegia aurrerago zehaztuko da, eta horretarako lanen antolaketa egin beharko da. Aipatu da, Etxea martxan jarritakoan ikusiko dela hobeto funtzionamenduak nolakoa izan behar duen.

Espazioaren antolaketarekin lotuta, sukaldearen beharra nabarmenduz Gune Zabalean atera ziren aipamenei erreferentzia eginez, nahikotzat jo da aurreikusitako office-a.

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak berriz, argitu du, Berdintasun Saila hasiera batean harreraren ondoan kokatuta egongo den arren, aurrera begira lehen solairuan egotea dela asmoa.

04

Espazioaren deskribapena



Etxearen Elkartearen funtzioak eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak ere zehaztu ditu Talde Eragileak:

04 Etxearen Elkarte

ETXEKO ORGANOETAN ORDEZKARITZA IZATEKO

Ordezkaritza funtzioak Gune Zabala edo Asanbladan ukeratuko da. Izan ere, erabakigune berri bat sortu beharrik gabe, dagoeneko kudeaketa organoetan zehaztuta dagoen Gune Zabala edo Asanbladak Elkartearen Asanblada izaera hartuko du.

INTERLOKUZIOARAKO

Bai udalekin zein Emakumeen Etxearekin mugitzerekin emakumeen artean sortzerdiren deialkudeatzeko

DIRULAGUNTZAK ESKATU ETA DIRUA KUDEATZEKO

Elkartearen Asanblada ere bihurtuko da Gune Zabala edo Asanbladan erabakiko da Elkartearen dirua nola eta zertarako erabiliko den. Era berean, diruaren kudeaketa lanaz arduratuko den talde bat sortuko da Etxean, Elkarteko presidente, idazkari eta diruzainari tramitazioekin laguntzeko.

BAZKIDEAK

Ez zaie baldintza berezirik eskatuko bazkide izan nahi duten emakumeei (kuotarrik ez), eta bazkide zerrenda barne mailan geratuko da.

Elkarteko presidentea eta idazkaria izendatuta daude, diruzaina falta da. Asmoa da orain Elkartearen sortzeko lantalde bat martxan jartzea eta Elkartearen sortzeko falta diren urratsak ematea (estatutuak onartuta daude, erregistratzea falta da).

5. Etxearen obren segimendua eta aurrera begirakoak

Lantalde hauek martxan jartzen ari dira:

- Obren segimendua eta altzariak
- Komunikazioa
- Inaugurazioa eta programazioa
- Elkartea sortu eta elkarrearen kudeaketa

Aste Santu ondoren berriro egingo zaie Gune Zabaleko emakumeei lantaldeetan parte hartzeko gonbidapena eta martxan jarriko dira lantaldeak. Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria arduratuko da lantalde hauen koordinazioaz.

Etxearen obrekin lotuta, informatu da, bi enpresa aurkeztu direla obra egiteko. Aste Santu ondoren egingo da esleipena eta **obraren ekainaren hasieran abiatuko dira**.

6. Besterik

Prentsaurreko bat egingo da proiektua aurkezteko Talde Eragileko eta Lantalde Politiko Teknikoko partaideekin. Aste Santu ondoren izango da, goizez ziurrenik. Data zehaztuta dagoenean, bidaliko da deialdia.

Aireztapen-sistemaren inguruan eskatutako informazioari erantzunez, bero-berreskuratzailer sistema izango du Etxeak; airea kanpotik barrura sartuko da, eta barrukoa kanpora botako du.

Elhuyarrek dinamizatutako prozesua amaitu da, edozein kasutan, Lantalde Politiko Teknikoak elkartzen jarraitu behar duela iritzi da. **Hurrengo bilera maiatzaren 16an, 17:00etan Tolosako Udaleko pleno-aretoan** izango da.

Hartutako konpromisoak:

KONPROMISOA	ARDURADUNA	DATA
Finantzaketa partekatua kudeaketa proposamena landu	Tolosako Udala	Maiatza
24 herrietako udal ordezkarien arteko bilera eguna jarri eta deialdia egin	Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria eta Berastegiko alkatea	Maiatza, Ekaina
Tolosalde Garatzenen bidez dinamizatzailea kontratatzeke egon daitezkeen aukerak Tolosaldea Garatzeneko administrazio kontseiluan landu ondoren, honen berri eman	Tolosalde Garatzeneko administrazio kontseiluan dauden ordezkariak	Apirila bukaera
Dinamizatzailearen kontratazioarako plegu teknikoak eta gaitegia eskatu beste herriei	Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria	Apirilak, Maiatza